

Donostia, 2023ko martxoaren 27a

## 37/23 PRENTSA OHARRA

### DTK-K MEMORIA AURKEZTU DU ETA 2022AREN BALANTZEA EGIN DU

DTK-k 2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta Erantzukizun Sozial Korporatiboari (ESK) buruzko Memoria aurkeztu ditu Administrazio Kontseiluan. Memoria jada eskuragarri dago Dbusen web orrian: [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)

2022aren ezaugarri bereizgarria izan da **eskaria nabarmen suspertu dela**, kudeaketa efizienteari eta COVID-19ak eragindako pandemiaren inpaktua pixkanaka gutxitzeari esker. Donostia da hiri garraio publikoaren eskaria azkarren berreskuratzen ari den hirietako bat, eta oraindik ere **operadore liderra** da hirian. DTKn 2022an kontabilizatutako bidaien kopurua, Dbuseko eta Dbiziko zerbitzuak barne, 26.291.471 bidaiakoa izan da, eta 2021ean 22.754.371 bidaiakoa izan zen.



Konpainia osatzen duten pertsona guztien ahaleginari esker, eta Udalari esker, akziodun den heinean, eta baita egunero-egunero garraio publikoaren alde egiten duten erabiltzaileei eta garraio publikoaren bilakaeraren oinarri diren aurrerapen teknologiko handiei esker ere, gaur egun Konpainia hiri garraioko enpresa eraginkor eta aurreratuetakoa bat da Europan. Azpimarratzekoa da Dbus dela duela gutxi **Transport Ticketing sarian**, Garraio Enpresa Berritzaileenaren kategorian, **finalista** aukeratu dituzten zazpi enpresetako bat. Garraio publikoko ordainketa sistemak aitortzeko nazioartean ematen den ospe handiko saria da.

#### 1. Bidaiak Dbusen

Bigarren urtez jarraian, Donostiak nabarmen gainditu ditu INEren estatistikak, Espainian hiri autobusak duen erabilerari dagokionez eta pandemiaren aurreko eskariarekin alderatuta eduki duen susperraldiari dagokionez. 2022. urtean Dbuseko zerbitzuetako autobus bidaiak **25.503.508** izan dira, eta aurreko urtean, berriz, 22.266.087 bidaia erregistratu ziren.

**Linea erabilienei** dagokienez, 2022an gehien erabili den linea **28-Amara-Ospitaleak** izan da, eta horren atzetik 13-Altza eta 5-Benta Berri lineak. Hiru lineek AENORen kalitate



ziurtagiria dute, Bidaiarien Garraio Publikoari buruzko **UNE-EN 13816 arauak** araututa, baina arauak ezartzen dituen konpromisoak, hiru linea horietan ez ezik, autobus flota osoan eta Konpainiaren eguneroko funtzionamenduan ere aplikatzen dira.

## 2. Bidaiak Dbizin

Dbizi bizikleta alokatzeko sistemak **igoera ikusgarria** izan du 2022an, %62 ingurukoa. Zehazki, 787.963 bidaia erregistratu dira, eta iaz, berriz, 488.284 bidaia erregistratu ziren Horietatik, bidaien %56,64 bizikleta elektrikoetan egin dira.



Sistemako abonatu kopuruari dagokionez, 2022ko urrian abonatu kopuru maximoa erregistratu zen, 8.370 erabiltzaile; horrek esan nahi du sisteman %38 abonatu gehiago dagoela, 2021eko daturik onenaren aldean (6.073 abonatu 2021eko urrian). Era berean, azpimarragarria da 2022an egon diren abonatu berrien kopurua, **aurreko sistemako abonatu kopuru maximoaren hirukoitza** izan baita, 2018ko irailean 2.854 izan baitziren.

Espero da 2023an ere sistema sendo egotea, bizikleta eta geltoki kopurua handituta eta oraindik zerbitzurik ez duten hiriko eremuetara zabaldua. Hedapen planaren barruan, 2022an **Herreran geltoki bat** instalatu da, eta, horrela, zerbitzuak 47 geltoki ditu guztira.

Horrez gain, 2022an Dbizik **AENOREn ziurtagiria** eskuratu du, Garraio Publikoaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren gaineko UNE-EN 13816 arauaren arabera, zeinak bere zerbitzuaren kalitatea aitortzen duen. Arau horren arabera AENOREn ziurtagiria duen bizikleten alokairurako **lehen enpresa da, eta bakarra**.

## 3. Hobekuntzak zerbitzuan

Pasa den urteko maiatzean linea hauetako hobekuntzak jarri ziren martxan: 19-Aiete-Bera Bera, 27-Altza-Intxaurrondo-Antiguo-Gros, 31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Larratxo eta 33-Larratxo-Intxaurrondo-Berio-Igara. Hobekuntza horietako batzuek **Garberarako zerbitzua zabaltzea** zuten helburu, hiriko alde horretan zerbitzu eskaria handitu da-eta.

27 lineako hobekuntza da horietako bat. Linea horretan Garberako geltokia gehitu da igande eta jaiegunetako zerbitzuetan, asteko egun guztietan geltoki hori bere ibilbideen parte izan dadin. Horrez gain, 33 lineari beste irteera bat gehitu zitzaion larunbatetan, Garberatik Larratxorantz, lanegunetako zerbitzu berdina emateko, eta astelehenetik larunbatera **zerbitzu berezi bat** jarri zen martxan, Garberan 22:45ean, hasi, eta Intxaurrondotik eta

Grosetik doana, Bulebarreraino. Era berean, 31 linearen **zerbitzua ere zabaldu zen Altzara**, aurretik egiten zuen ibilbidea berreskuratuta eta ospitale gunearakiko lotura hobetuta.

19 lineari dagokionez, larunbatetan zerbitzua 20 minutuan behin izatetik **15 minutuan behin** izatera igaro zen, eta maiztasun hori du gaur egun.

#### 4. Autobus flotaren elektrifikazioa

2022aren amaieran, Dbusek MAN markako **20 autobus %100 elektriko berrien erosketa** esleitu zuen. Zehazki, aurreikusten da 2023aren amaierarako **12 metroko 14 autobus %100 elektriko eta 18 metroko sei autobus %100 elektriko** zerbitzua ematen hasia. Erosketa hori datozen lau urteetan ezaugarri horiek dituzten beste 48 autobus gehiago ere erostea ahalbidetu eta flota berritzen utziko duen kontratu baten barruan sartzen da.



Esleipen horrekin **Dbusek orain arte egindako autobus elektrikoen erosketarik handiena egingo du**, gaur egun, 12 metroko 3 autobus %100 elektriko eta 59 autobus hibrido ditu-eta. Era berean, flotan modu iraunkorrean izango ditu 18 metroko lehen autobus %100 elektriko artikulatuak.

#### 5. Markesina berriak instalatzea

Datozen bi urteetan (2022-2024), DTK bere historiako markesina berrikuntzarik handiena egingo du, **246 unitate berri jarriko baititu**. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendarako Ministerioak emandako Next Generation Funtsen bidez, isuri gutxiko eremuak ezartzeko eta hiri garraioaren eta mugikortasunaren eraldaketa digitala eta jasangarria egiteko, Dbusek markesina sarea berritzen jarraitu du 2022an. Laguntza horiei esker, 136 markesina berri instalatuko dira, eta beste 110, berriz, dagoeneko berritzen ari dira, markesinen eta bestelako hiri altzarien kudeaketa integraleko zerbitzuaren emakidaren bidez.



## 6. Panel elektronikoko berriak

2022an, DTK-k panel elektronikoko progresiboki berritzeko prozesua egiten jarraitu du, hirian gehien erabiltzen geltokietan. Gaur egun 115 panel elektronikoko daude, eta horietako 12 modelo berrikoak dira jada. Panel horiek autobusaren etorreraren berri ematen dute, bai eta erabiltzaileentzat interesgarriak diren beste abisu batzuen berri ere, hala nola gertaerak eragindako mozketak, geraleku aldaketak eta abar.

Panelaren modelo berria **sendoagoa da, eta bere karaktereak hobeto irakurtzen dira**. Sistema berritzaile bat dauka, zeinarekin zerbitzua erabiltzaileen benetako eskarira egokitu daitekeen, autobus geltokian zain dauden pertsonen kopurua abiapuntu hartuta, horretarako ikuspen artifizialeko sentsoreak erabiliz.

## 7. Baliozkotzeko makinak berritzea

2022an, DTK-k lizitaziora atera du Dbuseko autobusak baliozkotzeko makinak berritzeko lana. 310 unitate berrituko dira, hau da, autobusaren aurrealdean eta erdialdean dauden makina guztiak, gidariaren postuaren ondoan dauden txartel makinak duela gutxi eguneratu ziren-eta. Horrela, Dbusek bere flotan dituen **ordainketa makina guztiek** gidariaren lanpostuaren ondoko txartel makinetan jada eskaintzen diren **funtzionalitate berdinak eta berritzaileak izango dituzte**. Makina berriek era guztietako sistemekin ordaintzea ahalbidetuko dute: MUGI txartelak, BAT eta BARIK txartelak, San Sebastian Card eta Basque Card turista txartelak, EMV kontakturik gabeko banku txartelak, baita laster Dbusean gaituko den QR kodeen sistemarekin ere.



## 8. I+G proiektuak:

- **Innobus-Tur:**

Donostia garraio publikoaren digitalizazioari buruzko “Innobus-Tur” proiektuaren liderra da, Palma Mallorcakearekin, Malagarekin eta Las Palmasekin (Kanaria Handikoa) batera. Urtebetez proiektuan lanean aritu ondoren, irailean, lau hirietako ordezkariak bilera egin zuten Donostian egiten ari diren ekintzen aurrerapenak aztertzeko.



Autobus sistemaren erabileragatik eta aurrerapenengatik nabarmentzen diren lau hiriren arteko lankidetzaren proiektu bat da, eta autobus zerbitzua eta haren intermodalitatea eta irisgarritasuna hobetzeko jarduerak berritzaile eta erreplikagarriak garatzeko egiten da, **prozesuak eta zerbitzuak digitalizatuz eta sentsorizatuz.**

- **5G konexioa Dbuseko autobusetan:**

Dbus "5G Euskadi" proiektuan parte hartzen ari da, zeinaren bidez 5G sare esperimental bat hedatu baita EAEko hiru parke teknologikotan (Miramon, Zamudio eta Miñao) eta Abadiño herrian. Euskadiko lehen 5G proiektu pilotua da, eta bere helburua da Euskal Herriko enpresa eta zentro teknologiko nagusien berrikuntza eta eraldaketa industrialak bultzatzea.



Proiektuan 13 agente parte hartzen ari dira eta bederatzire erabilera kasu inplementatzen ari dira. Kasu horietako hirutan Dbus parte hartzen ari da. Izan ere, Dbus izan da bere hiri autobusetan 5G konexioa ezarri duen lehen mugikortasun operadorea Estatuan.

2022ko ekainean, proiektuaren garapena ezagutzeko asmoz, Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren mendekoa den Red.es erakundeak, Donostiara etorri, eta Dbusen instalazioak bisitatu zituen, eta han **28-Amara-Ospitaleak linean inplementatutako sistemaren funtzionamendua ebaluatu ahal izan zuen.** Dbuseko autobusetan 5G teknologia ezartzeak aurrerapen handia ekarri du, autobusaren barruan wifi konexioa eta bideozaintza sistema hobetu baitira eta ibilgailuen mantentzen lanak erraztu baita.

- **Smart-Ramp:**

Proiektu berritzaile hau Donostiako autobus flotarako neurritan diseinatzen ari da, eta Dbus oraindik ere horretan ari da. Proiektua 10 autobusetan CPS sistema oso bat ezartzean datza (diseinatzea, ekoiztea eta frogatzea). Sistema horrek **arrapala bakoitzaren portaerarekin** lotutako informazio guztia emango du, Dbuseko arrapalen zabalpen automatikoa hobetzeko eta arrazoi ugari (hautsa, lokatza, kolpeak, elektrizitatea eta arrazoi mekanikoak, etab.) **eragindako arazo tekniko ohikoak saihesteko.** Proiektu honen bidez, mugikortasun murriztua duten pertsonen autobusetarako sarbide normala bermatu nahi zaie, hedapenean funtzionamendu txarra eragin dezakeen alferrikako edozein eragozpen saihestuz.

## 6. Illunberako anezka zerbitzua udan eta Gabonetan

Udan zein Gabonetan, Dbusek, Donostiako Udalarekin lankidetzan, **anezka autobusaren doako zerbitzua** jarri zuen abian, Illunbeko aparkalekua eta Erdialdea lotzeko. Zerbitzuaren helburua zen hirian **garraio publikoa sustatzea** eta trafikoa murriztea, eta, martxan egon den urteko bi sasoitán, herritarrek oso ondo hartu dute zerbitzua. 2022an egindako bi kanpainetan 27.453 bidaiari izan ditu zerbitzuak.




## 7. Laneko Arriskuen Prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezartzea

2022an, Dbus Laneko Arriskuen Prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarri du, ISO 45001 arauan oinarrituta, lan baldintza seguruak sustatzeko eta, horren bidez, lanarekin lotuta istripuak gertatzea eta osasunak txarrera egitea prebenitzeko. AENORren ziurtagiri hori DTK-k dituen hiru ziurtagiriei gehitzen zaie: Garraio Publikoaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren UNE-EN 13816 Arauaren araberako ziurtagiria, Dbusi zein Dbiziri aplikatua, eta ISO 50001 Energia Kudeaketako ziurtagiria, Konpainiak egiten duen energia kudeaketa eta etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoa bermatzen duena.

## 8. Garraio Publikoa sustatzeko kanpainak

2022an, Dbusek garraio publikoa sustatzeko hainbat kanpaina sortu ditu, hala nola udako ordutegiak indarrean sartzean, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean edo Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astearen kaleratutakoak.

Era berean, 2022an, pandemiaren geldialdiaren ondoren, Argibusa jardura egin du berriro ere. Konpainiaren autobus bat erabiliz adineko pertsoneri Donostiako Gabon giroa eta dekorazioa hurbiltzeko egiten den jardura da.



Horrez gain, 16. urtez jarraian, DTK-k Gabonetako "Dbus eta Gabonak" haurren marrazki lehiaketa antolatu zuen, eta azken edizio honetan **1.700 haurrek baino gehiagok** parte hartu zuten. Neska-mutikoen sormena sustatzeaz gain, lehiaketaren asmoa da gazteenak Donostian garraio publikoa erabiltzeak duen garrantziaz ohartaraztea, Donostiako hiri guneen eta donostiarren bizi kalitatearen iraunkortasuna bermatzeko balio baitu.



Horretaz aparte, apirilaren 15ean Haurren Eguna zela-eta, Dbusek kanpaina bat abiarazi zuen herritarrak lanpostuei lotutako genero rolen inguruan sensibilizatzeko eta haurrei rol horiek ez transmititzeko duen garrantziaz ohartarazteko.



"Handitan zer izango naiz?" leloarekin, asmoa zen adieraztea garrantzitsua dela haurtzaroan atek irekitzea, emakumeei edo gizonei dagozkien lanen gainean dauden aurreiritziak eta oztopoak ezabatuz eta baldintzarik gabe aukeratzeko askatasuna sustatuz. **Dbuseko langileak ziren** kanpainaren protagonistak, beren seme-alaba, iloba eta bilobekin batera.

## 9. Dbus, aitzindaria emakumeentzako eskaripeko geldialdien sistema bat ezartzen

2019az geroztik, Dbusek eskaripeko geldialdien sistema eskaintzen du gautxori linea guztietan, emakumeentzat eta 18 urtetik beherakoentzat. Donostia izan zen zerbitzu hori ezarri zuen **lehen hirietako bat**, 2018an zerbitzua B8-Mirakontxa-Benta Berri-Seminarioa linean ezarrita, eta, hilabete batzuk geroago, gaueko gainerako lineetara zabalduta.



2022ko udan, hirian ekitaldiak eta jaiak berriro egiten hasiko zirela-eta, **informazio material berriak** argitaratu ziren, Dbuseko autobusen erabiltzaileen artean zerbitzu horren erabilera bultzatzeko. Zerbitzua beste hiri batzuetan ere eskaintzen hasi da, eta emakumeen bidai



esperientzia hobetzea bilatzen du, emakumeak baitira Donostian autobusetan gehien bidaiatzen duen kolektiboa.

Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) helbidean edo deitu 900 840 146 telefono zenbakira.

